

**2015EKO ABENDUAREN 28AN SASIETA MANKOMUNITATEKO
BATZORDE ERREKTOREAK EGINDAKO BILERA**

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar- Aretoa

EGUNA: Hogeita zortzia

HILABETEA: Abendua

URTEA: Bi mila eta hamabost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

LEHENDAKARIA: Aitor Aldasoro Iturbe, Beasaingo ordezkaria

BILDUAK: Eluska Ibareguren, Altzagako ordezkaria
Luis Garmendia Sagastume, Aramako ordezkaria
Asier Rodriguez Etxeberria, Ataungo ordezkaria
Edorta Diaz del Rio, Beasaingo ordezkaria
Garikoitz Aiesta Etxaniz, Ezkio-Itsasoko ordezkaria
Arantxa Bidegain Ormazabal, Gabiriako ordezkaria
Ane Ormazabal Balerdi, Gaintzako ordezkaria
Ioritz Imaz Baztarrika, Idiazabalgo ordezkaria
Felix Urkola Iriarte, Lazkaoko ordezkaria
Iñaki Estensoro Sarasola, Lazkaoko ordezkaria
Koldobike Olabide Huelga, Legazpiko ordezkaria
Oscar Valbuena Pascual, Legazpiko ordezkaria
Urtzi Larrea, Legorretako ordezkaria
Iñaki Ugalde Alustiza, Mutiloako ordezkaria
Nerea Castaño Irazola, Olaberriko ordezkaria
Igor Eguren Izagirre, Ordiziako ordezkaria
Miren Alazne Sukia Galparsoro, Ordiziako ordezkaria
Olaia Izagirre Cruz, Ormaiztegiko Udala
Eñaut Telleria Urkia, Segurako ordezkaria

Igor Zubillaga Aguado, Urretxuko ordezkaria
Itziar Agirre Berriotxo, Urretxuko ordezkaria
Jose Antonio Etxabe Nazabal, Zaldibiko ordezkaria
Joseba Izagirre Arocena, Zegamako ordezkaria
Miren Arantzazu Ruiz de Larrinaga Olaizola, Zeraingo ordezkaria
Mikel Serrano Aperribay, Zumarragako ordezkaria

ETORRI GABEAK: Asier Garro Sodupe, Itsasondoko ordezkaria
Ricardo Lozano Landart, Zumarragako ordezkaria

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran ere parte hartu dute, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak, Iñaki Erauskin Urretabizkaia Zerbitzuburuak eta Enrike Enparantza teknikariak.

1.- AURREKO AKTA. 2015eko azaroaren 23ko aktan, Mutiloako ordezkariaren izena zuzendu behar da, titularra etorri ordezkari, Jule Aranburu Mariezcurrena ordezkaria etorri zelako.

Aldaketa hori egin ondoren, akta aho batez onartu da.

2.- GHK ETA GHK, S.A.U.rekin LANKIDETZA HITZARMENA. Sasieta zaborategian aldi baterako hondakinen altako transferentzia zerbitzua emateko, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U.ren eta Sasieta Mankomunitatearen arteko lankidetzaren hitzarmena onesteko proposamena.

Lehendakariak hitza hartu du eta azaldu du hitzarmena zertan datzan. Hitzarmen honen bidez ondorengo adosten da:

1.- Sasieta Mankomunitateak, errefuxa eta hondakin organikoaren transferentzia zerbitzua ematen jarraituko du (2015eko otsailaren 1etik ematen ari da) horretarako erabiltzen diren eta erabiliko duen pertsonalaren zuzendaritza eta antolakuntza bere gain hartuz (hiru langile). Aldi berean zerbitzu hori emateko Sasieta Mankomunitateak bere instalazioak jarri ditu (egokitze lanak eginez eta kaioak uxatuz) eta jartzen jarraituko du.

2.- GHK, S.A.U.k, zuzenean edo azpikontratutako enpresen bidez, errefuxa eta hondakin organikoa dagokion tratamendu plantara garraiatzeaz,

inausketa kudeatzeaz eta transferitutako hondakinei azken tratamendua emateaz arduratuko da.

3.- Sasieta Mankomunitateak transferentzia zerbitzua ematearen ordainetan, GHKren aldetik hilerio 27.100 €ko + BEZ, diru kopurua jasoko du, 2015eko abendutik kontatzen hasita.

4.- GHK, S.A.U.k errefuxa eta hondakin organikoaren garraio eta tratamenduaren nahiz inausketa kudeatzearen kostua bere gain hartuko du.

5.- Sasieta Mankomunitateak transferentzi zerbitzua, zabortegia itxi zen 2015eko otsailaren 1etik, ematen duenez, 271.000 € + BEZ, jasoko ditu GHK, S.A.Uren aldetik. Diru kopuru hori behin bakarrik eta dena batera jasoko du.

6.- Ordainketak, GHK, S.A.U.k egingo ditu Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren izenean eta honen kontura.

7.- Hitzarmenaren iraupena 24 hilabetekoa izango da sinatzen denetik kontatzen hasita eta ordutik sortuko ditu eraginak bi aldeentzat. Dena dela amaitutzat emango da, Kontsortzioaren jabetzakoa izango den, Transferentzia estazioa egiten denean.

8.- Hitzarmenaren izaera administratiboa izango da. Interpretatzeko eta betearazteko jurisdikzioa: administraziorekiko auzia.

9.- Behin betiko transferentzia estazioa egiten denean, 2009ko uztailaren 1ean sinatutako konpromisoa mantenduko da.

10.- Bi aldeetako norbaitek adostutakoa bete ezean, besteak eskumena izango du betearaztea exijitzeko edo hitzarmena bertan behera gelditzea eskatzeko.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, ondorengo iritziak jaso dira:

Zeraingo ordezkariak, zazpigarren klausulan aipatzen den txosten ekonomikoa eskuratu dezaken galdetu du. Bere ustetan dokumentazioa berandu iritsi da eta ez da denbora gehiegi izan ondo aztertzeko.

Lehendakariak ihardetsi dio esanez, bere nahia ere zela orain hilabete jasotzea, baina abenduaren 23an bidali dutela.

Iñaki Erauskin zerbitzuburuak adierazi du, orain arte aldaketak egiten aritu direla eta bakarrik gaztelaniaz eta azkeneko momentu-arte ez dela adostasunik izan, orain sei urte langileei buruz hartutako akordioa errespetatu nahi ez zutelako eta gain ordaindu nahi zigutena beste transferentzi estazioak erreferentzi modura hartuta ez zelako justua.

Lehendakari jaunak: “Normalean dirua ematen duenak du zartagina eskutik eta berak markatzen ditu erritmoak.”

Eñaut Telleria Urkia, Segurako ordezkariak bere desadostasuna adierazi du VII. Aurrekarietan esaten duenarekin, bere ustetan alferrikakoa delako, nahita jarrita dagoelako eta esaten dena soberan dagoelako.

Igor Eguren Izagirre, Ordiziako ordezkariak: “Baina, hitzarmena onartu nahi badugu, suposatzen da ados egon behar garela, ezta?.”

Iñaki Erauskin zerbitzuburuak: “Xehetasun horiek beraiek sartu dituzte.”

Lehendakari jaunak: “Nik esango nuke aurrerakin hori jarri dutela, beraiek beste Mankomunitateen aurrean gastua justifikatu egin behar dutelako. Izan ere besteen kasuan jasotzen duten ekarpena txikiagoa da.”

Mikel Serrano Aperribay, Zumarragako ordezkariak: “Azken hilabete honetan lan asko egin da hitzarmen hau lortzeko eta nik uste dut horri balioa eman behar zaiola. 2015-12-22an kontsentsuatu zen eta hurrengo egunean bidali zen udaletxetara.

Eñaut Telleria Urkia, Segurako ordezkariak: “Nik ez du zalantzan jartzen egin den lana. Aurrekari horretan azpiegiturak aipatzen dira, zein azpiegitura dira horiek?”

Lehendakari jaunak: “Transferentzia estazio zerbitzua ematearen ondorioz sortutako fakturak ez zituzten onartu nahi, baina azkenean onartu dituzte guk gastuak justifikatu ditugulako. Nik ez nuke esango horrekin errauskailua aipatu nahi denik.”

Mikel Serrano Aperribay, Zumarragako ordezkariak: “Aurrekari horrekin beraiek 271.000 €ko diru kopurua eman beharra izatea justifikatzen dute.”

Eñaut Telleria Urkia, Segurako ordezkariak: “Beno, orduan ulertu behar dugu transferentzia estaziotaz ari direla, nahiz eta nik ez jakin “infraestructuras previstas en el CGRG” delakoan zer aurreikusten den.”

Beste ordezkari batek esan du berak horrela ulertu duela, kontuan izanda VI. Klausulak dioena eta eman behar diguten dirua.

Iñaki Erauskin zerbitzuburuak: “CGRGan (Centro de Gestión de Residuos de Gipuzkoa), azpiegitura guztiak aurreikusita daude.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta aho batez ondorengo erabakia:

Lehenik. Jarraian transkribatzen den, Sasieta zabortegean aldi baterako hondakinen altako transferentzia zerbitzua emateko, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U.ren eta Sasieta Mankomunitatearen arteko lankidetzaz-hitzarmena onestea.

Bigarren. Aitor Aldasoro Iturbe, Lehendakari jaunari baimena ematea, aipatutako hitzarmena sinatzeko eta hitzarmenaren ondorioz egin beharreko ekintzak burutzeko.

“GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN, GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, SAUren ETA SASIETA MANKOMUNITATEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, SASIETAKO ZABORTEGIAN HONDAKINEN BIDERAKETA-SAREKO TRANSFERENTZIA ZERBITZUA BEHIN-BEHINEAN EMATEKO.

Hernanin, 2015eko abenduaren 30(e)an.

ELKARTUAK

Alde batetik, JOSE IGNACIO ASENSIO BAZTERRA, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren presidente gisa, 2015eko abenduaren 22ko Batzarraren akordioaren indarrez eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAUren (aurrerantzean GHK, SAU) Administrazio Kontseiluko presidente gisa, Administrazio Kontseiluak 2015eko abenduaren 22an hartutako akordioaren indarrez diharduela.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak bere sozietate unipertsonal eta baliabide propio GHK, SAUren bidez gauzatuko du hitzarmen hau; horrenbestez, hitzarmen honetan

Kontsortzioari buruz egiten den aipamen oro GHK, SAUri buruz ere egina dela ulertuko da.

GHK, SAUk erakunde instrumental gisa hartzen du parte hitzarmen honetan, bertan jasotzen diren zehaztapenak gauzatzeko ardura izango baitu, eta bertan Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioarentzat zehazten diren eskubide eta obligazioak bere gain hartu beharko baititu.

Bestetik, **AITOR ALDASORO ITURBE**, Sasieta Mankomunitatearen lehendakari gisa, kargu horretarako izendatu baitzuten 2015eko irailaren 8an. Mankomunitatearen Zuzendaritza Batzordeak 2015eko abenduaren 28an hartutako akordioaren indarrez dihardu.

PARTE HARTZEN DUTE

Bere karguei dagozkien eginkizunetan, eta elkarri aitortzen diote hitzarmen hau emateko erabateko gaitasuna. Eta horretarako, hurrena

ADIERAZTEN DUTE

I.- Kontsortzioaren helburu nagusia, bere **estatutu**etako 7. artikuluan jasoaren indarrez, hiri hondakinen **bideraketa-sarearen kudeaketa lanak** egitea da; eginkizun horien artean sartzen da GHHKPO 2002-2016 agirian aurreikusitako azpiegiturak - Kontsortzioan sartutako erakunde bati baino gehiagori zerbitzua eman diezaieketenak-sortzeko eta ustiatzeko jardueren multzoa, zehazki, eta besteak beste, honakoak:

- «Azken tratamendurako (errauzea eta konpostatzea) **plantetatik urrun dauden mankomunitateen eremuan** hiri hondakineterako behar diren **transferentziaguneen** kokapen, diseinu, eraikuntza edota kudeaketa, hondakinen bideraketa-sarearen kudeaketarekin lotutako prozesu guztietan; betiere, hirugarren xedapen gehigarrian zehaztutakoa kontuan hartuta, inolaz ere».
- «Hiri hondakinen garraioa bera, transferentziaguneetatik azken tratamendurako (errauzea eta konpostatzea) plantetarainokoa edo, hala egokituz gero, zabortegirainokoa».

II.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Hiri Hondakinen Transferentzia eta Tratamendu Zerbitzu Publikoa Kudeatzeko **Erregelamenduak** arautu egiten ditu, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren kudeaketa esparruan, hiri hondakinen **transferentzia**, garraio eta tratamendu jarduerak, hain zuzen ere 3. artikuluan jasotzen dituen instalazioen ustiapenetik datozenak; instalazio horien artean honakoak daude:

“c) San Markoseko eta Debagoieneko hiri hondakinen transferentziaguneak (Akei, eta honen orde ezartzen dena), eta **etorkizunean martxan jarriko diren** Debabarrena, **Sasieta** eta Lapatxeko transferentziaguneak”.

Erregelamendu horretan, zehazki eta besteak beste, honako zerbitzuak aurreikusi dira:

“Transferentziaguneetako hondakinak jasotzea, trinkotzea eta gero, estazio horietatik azken kudeaketarako zentroetara garraiatzea (zabortegetara, Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko zentrorra, konpostatzeko plantetara edota ontziratzeoko plantetara).

III.- Aipatu Erregelamenduen 4. artikulua, zerbitzu prestazioari buruzkoak, Hiri Hondakinen **Transferentzia**, Garraio edota Tratamendu Zerbitzu Publikoa Kudeatzeko Kontratu osatzen duten dokumentuen artean jasotzen ditu azpiegituren, esaterako zabortegetien, titular diren beste administrazio batzuekin eta transferentziagune jakin batzuekin -hori argitaratu zen unean Akeikoa eta San Markosekoa ziren- egindako hitzarmenak.

IV.- Indarrean dagoen Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Azpiegituren Lurraldearen Arloko Planaren 6.3 apartatuan, aurreikusten da **transferentziaguneak instalatzea gaur egun horrelako instalaziorik ez daukan Gipuzkoako mankomunitate bakoitzarentzat, Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Zentrotik 30 km baino gutxiagoko erradioan daudenen kasuan izan ezik.**

6.3.3 apartatuan transferentziagune **behar espezifikoak** ezartzen dira, eta horien artean jasotzen da **Sasietan transferentziagune bat** izatea.

V.- Sasieta Mankomunitatearen Zuzendaritza Batzordeak, 2014ko azaroaren 25ean egindako saioan, erabaki zuen jarduera aldi baterako gelditzea; erabaki horrek 2015eko urtarrilaren 31tik aurrera izango zuen indarra.

Behar dituen ondorioak izan ditzan, adierazten da ezen gaur egun Sasieta Mankomunitateak ematen duen hondakinen bideraketa-sareko **transferentzia** zerbitzuak aukera ematen duela Gipuzkoako 50 udalerrri atenditzeko (128.000 biztanle), eta urtean 30.700 tona hiri hondakin transferitzen direla (15.400 tona errefusari dagozkio, eta 15.300 tona biohondakinari); hondakin horien **garraio** eta geroko bideraketa-sareko tratamendua ematen duena Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kontsortzioa da.

VI.- Sasieta Mankomunitatearen Zuzendaritza Batzordeak, 2015eko azaroaren 23an egindako saioan, **Sasietako zabortegetia behin betiko ixteko erabakia** hartu zuen.

2015eko otsailaren 1etik aurrera, Sasieta Mankomunitatea behin-behinean ari da ematen Sasieta eta Tolosaldeko mankomunitateak osatzen dituzten udalerrien eremuan bildutako errefusaren eta biohondakinaren bideraketa-sareko transferentzia zerbitzua.

VII.- Egia zera da, GHKZn aurreikusitako azpiegiturak funtzionatzen hasteko gertatutako atzerapenak -kasu batzuetan horiek eraikitzeke lanak hasi ere ez dira egin-, beste berri edota haien ordezkotzat ez aurreikustearekin eta ez egitearekin batera, eragin negatiboa izan duela bere garaian aurreikusitako programazioan, eta horrek eragin du zabortegiaren jarduera-esparrua zein prestazioak hondakineterako transferentziagune batez areagotu beharra. Horregatik, hori egiaz garatu eta gauzatzeko, bertako instalazioak eta makineria egokitzea jaso behar da batetik, dena orokorrean harturik betiere, eta behar beste langile mantentzea edota kontratatzea bestetik, eginkizun horiei ekin ahal izateko behar besteko finantzaketarekin eta, hala badagokio, horren amortizazioarekin batera.

VIII.- Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko sailburuordearen 2015eko maiatzaren 19ko ebazpenaren indarrez, eta beste aurreikuspen batzuen artean, **gauzatu** egin da Sasieta Mankomunitateari hondakin ez arriskutsuetarako zabortegi jardueran aritzeko emandako **Ingurumen Baimen Integratua (IBI)**.

Baimen horretan ezartzen da aldi baterako hondakineterako transferentziagune bat dagoela, eta horrek bi plataforma egokitu eta bereizi dauzkala, balorizatu ezin den errefuserako bata eta gaika bildutako biohondakineterako bestea.

IX.- Era berean, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak leku bat behar du Sasieta zabortegia kokatuta dagoen espazioan, aldatze fasean den Hondakineterako Azpiegituren Lurraldearen Arloko Planak ezartzen duenarekin bat eraikitzearen behin betiko transferentziagunea.

X.- Azalduaren arabera, hitzarmen honen xedea honakoa da:

a) Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Hiri Hondakinen Transferentzia eta Tratamendu Zerbitzu Publikoa Kudeatzeko **Erregelamenduaren** 4. artikulua ezartzen duenarekin bat, Sasieta eta Tolosaldeko mankomunitateetatik datorren errefusaren eta etxeko biohondakinaren bideraketa-sareko transferentzia zerbitzua zehaztea, inausketako hondarrak jasotzeko eta metatzeko zerbitzuarekin batera, zerbitzu hori Sasieta Mankomunitateak emango baitu, aldi batez eta behin-behinean, Beasaingo Sasieta zabortegian kokatutako bere titularitateko hondakinen transferentziagune baten bidez; eta horretaz gain, zerbitzu hori emateagatik jasotzea dagokion ordain ekonomikoa zehaztea.

b) Sasieta Mankomunitateari aldi baterako eskatzen zaion transferentzia zerbitzuaren kostua zehaztea, mankomunitateak berak emandako txostenetan kostu horri buruz jasotako informazio justifikatuaren arabera, eta pertsonal gastuak ere kontuan hartuta.

c) 2015eko otsailaren 1etik aurrera egiaz emandako zerbitzuengatik ordain ekonomikoa ezartzea, ez baita horiengatik inolako ordainsaririk jaso. Ordain hori Sasieta Mankomunitateak jasandako zerbitzuaren kostu efektiboaren araberakoa izango da; kostu horrek, betiere, behar bezala frogatuta egon beharko du, GHKren zerbitzu ekonomikoen iritziz.

Hori guztia ikusirik, parte-hartzaileek Lankidetzaren Hitzarmen hau izenpetzen dute, betiere jarraituz ondoren datozen

ESTIPULAZIOAK

Lehena.- Sasieta Mankomunitateak transferentzia zerbitzua emango du egunero Sasieta eta Tolosaldeko mankomunitateen eremuan biltzen diren errefus ez birziklagarriarentzat eta etxeko biohondakinarentzat, Beasaingo Sasieta zabortegean kokatutako aldi baterako hondakin transferentziarako estazio baten bidez. Estazioak HIRU area bereizi edukiko ditu, estali gabeak horiek eta bereziki egokituak, eta mankomunitateko udalerrietatik datozen inausketako hondarrak ere metatuko ditu. Eta GHK-k bere garaian erabakiz gero, ondoren aipatzen diren lanak ere egingo ditu, betiere GHKren zerbitzu teknikoen ikuskaritzapean, lanak behar bezala egitera begira:

1) Errefusari dagokionez:

- a) Etxeko errefusa, Sasieta eta Tolosaldeko mankomunitateen eremuan edukiontzi bidez edo atez ate bildutakoa, jasotzea eta pisatzea.
- b) Errefusaren deskarga, metaketa eta transferentziarako zona antolatzea eta kudeatzea.
- c) Errefusa GHK, SAUK kontratatu eta kudeatutako transferentziarako ibilgailuetan kargatzea, bitarteko mekanikoak erabiliz horretarako.
- d) Sartzen edo ateratzen den garraio bakoitzari buruzko datuak HHKSIn jasotzea.

2) Biohondakinari dagokionez:

- a) Etxeko biohondakina, Sasieta eta Tolosaldeko mankomunitateen eremuan edukiontzi marroiaren bidez edo atez ate bildutakoa, jasotzea eta pisatzea.
- b) Biohondakinaren deskarga, metaketa eta transferentziarako zona antolatzea eta kudeatzea.

- c) *Deskargatutako biohondakinaren kalitate kontrola, ikuskapen baten bidez, desegokiak detektatu eta, hala dagokionean, kentzeko.*
 - d) *Biohondakinak GHK, SAUk izendatutako konpostatze plantara ateratzeko albaranak ematea; GHK, SAUk egingo du bideraketa-sareko garraioa, dituen eskumenei jarraiki.*
 - e) *Biohondakinak GHK, SAUk kontratatu eta kudeatutako transferentziarako ibilgailuetan kargatzea, bitarteko mekanikoak erabiliz horretarako.*
 - f) *Sartzen edo ateratzen den garraio bakoitzari buruzko datuak HHKSIn jasotzea.*
- 3) *Inausketako materialari dagokionez:*
- a) *Sasieta Mankomunitateak zona egoki bat izendatuko du inausketako materiala metatzeko, hain zuzen beste hondakin batzuekiko kutsadura gurutzatua saihesteko, eta egituratzaile gisa erabili beharreko materiala kutsa dezakeen zepa edo antzekorik gabeko oinarri batez.*

Mankomunitateak ez du onartuko, eta berak kontrolatuko du gainera, inausketako materialarekin epaitondorik edo 20-25 cm-ko diamentrotik gorako enborrik sartzea, ezta inolako desegoki, lur edo harririk ere. Mankomunitateak bere gain hartuko du material desegokiaren sarrera, sarrera hori behar bezala kontrolatzen ez bada, zabortegira garraiatzeko eta bertan isurtzeko kostuekin batera, hala badagokio.

Inausketako materiala deskargatzeko, metatzeko eta xehatzeko zabaldegiak zeparik gabe egon behar du, eta egokia izan behar du ibilgailuak igartzeko eta pala kargatzaile batez materiala maneatzeko. Hormigoizko azalera bat gomendatzen da, edo harrobiko zagor trinkotuzko zelaigune bat.

1.500 m²-ko azalera bat behar dela jotzen da, edo bestela 500 m²-ko bat mankomunitateak maizko metatze lana eginez gero.
 - b) *GHK-k baimenduko du inausketako materiala metaketa-zonan sartzea; beraz, inausketako materiala bertan utzi nahi duten enpresa edo zerbitzuek GHKra jo edo GHKrekin harremanetan jarri beharko dute, zerbitzu teknikoek ezarritako prozedura betetzeko, eta GHKren baimena jasotzen dutenean, Sasieta Mankomunitateari aditzera emango zaio hori, material hori sartzen utz dezan eta sartu nahi den materiala tokian bertan ikuska dezan; eta Sasieta Mankomunitatearen ardura izango da inausketako materiala onartzeko GHK-k ezarritako baldintzak behar bezala betetzea.*
 - c) *Sartzen edo ateratzen den garraio bakoitzari buruzko datuak HHKSIn jasotzea.*

Bigarrena.- *Sasieta Mankomunitateak, goian aipatutako betekizunei dagokienez, ondoko lan hauek hartuko ditu bere gain:*

- a) *Transferentziarako lanetan erabiliko den pertsonala zuzentzea eta antolatzea, eta mankomunitatearen langileei dagozkien aginduak, lana egiteko irizpideak*

eta lana banatzeko jarraibideak ematea, bere gain hartuz, betiere, lansariak negoziatzea eta ordaintzea, baimenak, lizentziak eta oporrak ematea, ordezkapenak eta, oro har, lan arloan indarrean dauden xedapen guztiak betetzea. Era berean, lan arriskuen prebentzioaren arloko legezko obligazioak bete beharko ditu, diziplina zigorrak ezarri hala dagokionean, eta Gizarte Segurantzari lotutako alderdi guztiak bete, kotizazioen eta prestazioen ordaintzarekin eta Mankomunitatearen eta langileen arteko kontratu-harremanetik ondorioztatzen diren eskubide eta betekizunekin lotutako guztiarekin batera.

- b) Langileei laneko jantziak eta babes-ekipoak ematea.*
- c) Bere langileen telefono (telefono mugikor) bidezko komunikazioak.*
- d) HIRU zona bereizi egokitzea hurrenez hurren errefusa, biohondakina eta inausketako materiala deskargatu, metatu eta kargatzeko, betiere kutsadura gurutzatu mota oro saihestuta.*
- e) Errefusaren eta biohondakinaren transferentziarako zonetan sortzen diren lixibiatuak jasotzea eta tratatzea.*
- f) Hondakinak metatzeko eta kargatzeko lanetan erabiltzen den makineriaren kontserbazio eta mantentze lanak, eta langileek transferentzia eremura iristeko erabiltzen duten ibilgailuarenak, aseguru polizen kontratazioarekin eta zergen ordaintzarekin batera.*
- g) Kargako makineriarako eta zerbitzuko ibilgailurako erregai eta lubrifikatzaile hornidura.*
- h) Zabortegiko transferentzia eremurako sarbideak mantentzea eta seinaleztatzea, bai hondakinak deskargatzen dituzten ibilgailuentzat bai tratamendu plantetara transferitzeko eginkizuna dutenentzat.*
- i) Errefusa eta etxeko biohondakinak, eta hala dagokionean inausketako materiala, gaueko ordutegian deskargatzen dituzten bilketa-ibilgailuek behar duten argiztapena mantentzea, bai sarbideetan (farolak) bai deskargako zonan (argizatze dorrea).*
- j) Argiztapen sistemak eta baimenik gabeko pertsonak edo ibilgailuak transferentzia eremura libre sartzearagozten duten ateak mantentzea.*
- k) Argiztapenerako erabiltzen den argindarra hornitzea.*
- l) Aldian aldiko arratoi-hiltzea eta biohondakinak eta errefusa zabortegiaren barrutian aire librean metatzearekin lotutako faunaren kontrola, inausketako materialerako zonan bezalaxe.*

- m) Hondakin sarrera eta irteera guztien eguneroko pisatze eta kontrola, eta informazio hori GHK, SAUren ematea, eskatzen den aldizkakotasunez.
- n) Transferentzia eremuko sarreran eta irteeran pisua kontrolatzeko erabiltzen den baskularen mantentze eta aldian aldiko kontrol metrologikoa, indarrean dagoen araudiarekin bat.
- o) Aldi baterako transferentzia zerbitzua behar bezala emateko beste edozein lan, GHK-k bere instalazio propioa daukan arte.

Hirugarrena.- GHK, SAUK, bai zuzenean bai propio azpikontrataturako enpresen bidez, honakoak hartuko ditu bere gain:

- a) Biohondakina eta errefusa une bakoitzean izendatzen dituen tratamendu plantetara garraiatzea.
- b) Inausketen kudeaketa (ikuskapena, balidazioa, xehatzea, etab.). Landare-hondakin hori tokian bertan xehatuko du GHK-k izendatzen duen enpresak, eta mankomunitateari beharrezko informazioa emango dio, enpresa jarduerak koordinatzera begira.
- c) Transferitutako hondakinen azken tratamendua.

Laugarrena.- Sasieta Mankomunitateak instalazio batzuk dauzka lehen eta bigarren estipulazioetan aipatzen diren zerbitzuak behar bezala emateko. Instalazioen zerrenda, aipamen balio hutsekoa, honakoa da: transferentzia eremurako sarbideak, behar bezala seinaleztatuak; farolak eta argizatze dorreak; sarreretarako kontrol sistema; erregai-depositua; makineria garbitzeko lanetarako ura ponpatzeko estazioa; biohondakina jasotzeko hormigoizko plataforma hormaduna; aldagela eta garbigela; biltegia eta bulegoa; pisatzeko baskula; hondakinak jaso eta kargatzeko makineria; zerbitzuko ibilgailuak, eta beste.

Mankomunitateak berak alegatu duenaren arabera, zabortegia egokitzeko obrak egin behar izan ditu, bere instalazioak transferentzia zerbitzua emateak dituen eskakizunetara egokitzearen.

Inausketa zerbitzua emateko, Mankomunitateak alegatzen du ezen, bere ustez, gutxi gorabehera urtebeteko epean izango duela zerbitzu hori emateko behar den azalera, lohiak egonkortzeko lanak egin ondoren.

Bosgarrena.- Hitzartutako transferentzia zerbitzua emateagatik, GHK-k **27.100 € (gehi BEZ)** ordainduko ditu hilean. Horretarako, Mankomunitateak faktura bat eman beharko du hilean, aurtengo abenduko hilean hasirik horretan. Kostu hori behar beste justifikatu da, GHK, SAUren zuzendariaren iritziz, Sasieta Mankomunitateko teknikariek emandako txosten ekonomiko batean.

Seigarrena.- Transferitutako biohondakina eta errefusa garraiatzea eta tratatzea, inausketako materialaren kudeaketarekin batera, GHK, SAUk hartuko du bere gain, bere eskumenen barnean.

Zazpigarrena.- Alderdi biak bat datozela, zabortegia behin betiko ixteko erabakitik, eta 2015eko otsailaren 1etik aurrera kontatzen hasita, transferentzia zerbitzua hamar hilabetez eman dela kontuan harturik, zehaztu dute ordainik jaso gabe emandako zerbitzuengatik konpentsaziotik ondorioztatzen den zenbatekoa 271.000 eurokoa izango dela, dagokion BEZa gehituta, eta kopuru hori dena batera ordainduko dela eta ez da kontzeptu horiengatik beste ordainketarik izango. Kopuru hori hitzarmenari l. eranskin gisa gehitutako txosten ekonomikoan justifikatzen da. Horretan, izan ere, kontzeptuak eta zenbatekoak jasotzen dira, behar bezala frogatuta horiek, eta bat etorriz, gainera, Sasieta Mankomunitateak alegatutako zerbitzuaren hileko kostuarekin.

Zortzigarrena.- Kontsortzioaren baliabide propioa izaki, eta eman zaion kudeaketa mandatuan aurreikusitako baldintzetan, GHK, SAUk bere gain hartuko du hitzarmen honetan aurreikusten diren ordainketak egitea, betiere Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren kontura eta izenean.

Bederatzigarrena.- Sasieta Mankomunitateari agindutako transferentzia zerbitzuaren prestaziorako 24 hilabeteke iraupena aurreikusten da, hitzarmen hau sinatzen denetik kontatzen hasita. Edonola ere, Kontsortzioaren titularitateko etorkizuneko transferentziagunea martxan jartzen denean amaituko da.

Hamargarrena.- Hitzarmen honek izaera administratiboa du; beraz, hitzarmena interpretatu eta garatzerakoan, herri administrazioen arteko hitzarmenetan aplikatu beharreko antolamendu juridiko administratiboa aplikatuko da.

Hitzarmena interpretatu edo betetzerakoan sor litezkeen arazoak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren eskumeneoak izango dira.

Hamaikagarrena.- Hitzarmenak ondorioak izango ditu eta alderdiak lotuta geratuko dira sinatzen den egunetik aurrera.

Hamabigarrena.- Etorkizuneko eta behin betiko transferentziagunea eraiki ondoren, 2009ko uztailaren 1eko hitzarmenean sinatutako konpromisoa mantenduko da.

Hamahirugarrena.- Alderdietakoren batek bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, beste alderdiaren esku egongo da haiek zorrotz betearaztea edo hitzarmena suntsi dadin eskatzea.”

Hitzarmena onartzearen ondorioz aipatu da, Udalek 2015eko abenduaren 31rako aurreikusten den aurrekontu-emaitza negatiboari eta altxortegiko gerakin negatiboari aurre egiteko, egin beharreko ekarpena eta 2015eko azaroaren 23ko Batzorde Errektorean onartutakoa aldatu egiten dela eta horren ondorioz, ondorengo izango dela:

EJERCICIO 2015 EKITALDIA		
UDAL EKARPEN BEREZIA / APORTACION MUNICIPAL ESPECIAL		
UDALERRIAK MUNICIPIOS	2015eko partehartze portzentaia Porcentaje de participación 2015	Ekarpene berezia Aportación especial
ALTZAGA	0,3153%	1.157,82 €
ARAMA	0,3584%	1.315,95 €
ATAUN	2,5359%	9.311,11 €
BEASAIN	17,0250%	62.511,32 €
EZKIO-ITSASO	1,2355%	4.536,39 €
GABIRIA	0,8809%	3.234,27 €
GAINTZA	0,3874%	1.422,38 €
IDIAZABAL	3,0383%	11.155,85 €
ITSASONDO	1,1509%	4.225,73 €
LAZKAO	7,7876%	28.594,10 €
LEGAZPI	12,4054%	45.549,39 €
LEGORRETA	2,1249%	7.802,01 €
MUTILOA	0,8826%	3.240,85 €
OLABERRIA	2,7423%	10.069,17 €
ORDIZIA	13,7875%	50.624,26 €
ORMAIZTEGI	2,1982%	8.071,17 €
SEGURA	2,1166%	7.771,43 €
URRETXU	9,1369%	33.548,27 €
ZALDIBIA	2,4576%	9.023,50 €
ZEGAMA	2,1911%	8.045,08 €
ZERAIN	0,6670%	2.449,18 €
ZUMARRAGA	14,5748%	53.514,76 €
GUZTIRA - TOTAL	100,0000%	367.174,00 €

Onetsitako ekarpene - Aportacion aprobada (2015-11-23):	665.274,00 €
Transferentziarekin lotutako sarrerak - Ingresos por transferencia:	298.100,00 €
Ondoriozko ekarpene - Aportación resultante	367.174,00 €

Aldaketa hau Sasieta Mankomunitatea osatzen duten udalerrri guztiei jakinaraziko zaie.

3.- “UTE GOIERRI GARBIA”REKIN KONTRATU ALDAKETA. Gabiriko udalaren Osoko Bilkurak 2015eko urriaren 27an, zenbait sortzaile bereziei materia organikoa biltzeko zerbitzua mankomunitateari eskatzeko erabakiaren aurrean, Klausula Administratibo Partikularren Orriko 12.2 klausulan

“aurreikusitako aldaketen” inguruan xedatutakoaren arabera, UTE GOIERRI GARBIArekin kontratua aldatzeko proposamena.

Ezagutzera eman da, Gabiriako Udalbatza Osoak 2015eko urriaren 27an hartutako erabakia, hau da:

“1.- Gabiriako udalerrian dauden birziklagune desberdinak giltzaz ixtea eta erabiltzaile bakoitzak bere giltza ematea.

2. Taberna, jatetxe eta antzeko establezimenduak sortzen duten hondakin organikoa jasotzeko bere banakako kontenedoreak ematea. Hauek izango direlarik: Ostatua, Korta Jatetxea, Aztiriako Erretegia eta Bekoerota aterpetxea.”

Orain proposamen hau egiteko, Sasieta Mankomunitatearen esparruan hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuari buruzko kontratua aldatzeko baldintza pleguak esaten dutena bete da, hau da:

- 1.- Zerbitzuburuak txostena eman du (2015-12-21).
- 2.- Kontratistari kontratua aldatzeko eskaeraren berri eman zaio (2015-12-22).
- 3.- Kontratistak azterlan-ekonomikoa aurkeztu du (2015-12-23).

Horren ondorioz, proposatu da UTE GOIERRI GARBIArekin kontratua aldatzea.

Bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Sasieta Mankomunitatearen esparruan hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko, UTE GOIERRI GARBIArekin kontratua aldatzea, Gabiriko Ostatuan, Korta Jetetxean, Aztiriako Erretegian eta Bekoerota aterpetxean, hondakin organikoa jasotzeko banakako kontenedoreak jartzeko.

Bigarren. Kontratuaren aldaketa honek %0,26ko gehikuntza suposatzen du eta kontutan izanda:

- 2015ko irailaren hamaseian egindako batzarrean Lazkaon edukiontzietan oinarritutako bilketa-sistema jartzeko kontratua aldatu egin zela (esleitutako prezioan -%1,32 aldaketa eraginez).
- 2015ko urriaren hamabostean egindako batzarrean Legazpin edukiontzi grisak jarri ahal izateko kontraturen aldaketak +%0,07ko igoera suposatzen duela,

Oraingo aldatetarekin (guztira hiru aldateta) kontratuaren prezioa, 3.694.113,42 €koa izatera pasatuko da. Aldaketa guztiak kontuan izanda, esleitutako kontratuarekiko suposatzen dutena da: -%0,99a.

ESLEITUTAKO ZERBITZUA / SERVICIO ADJUDICADO UTE GOIERRI GARBIA	€/urteko €/año
Pertsonal kostuak - Costes de personal	2.097.152,00 €
Erregai kostuak - Costes de combustible	374.248,49 €
Beste zenbait kostu material - Otros costes materiales	330.489,16 €
Inbertsioen amortizazioa - Amortización de las inversiones	244.892,90 €
Exekuzio materialeko kostua - Coste de Ejecución Material	3.046.782,55 €
Gastu Orokorrak eta Mozkin industrialia (%9) - Gastos Generales y Beneficio Industrial (9%)	274.210,43 €
Finantza gastuak - Gastos Financieros	70.922,30 €
PINARRI ZERGAGARRIA - BASE IMPONIBLE	3.391.915,28 €
BEZ (%10) - IVA (10%)	339.191,53 €
ESLEITUTAKO PREZIOA GUZTIRA / Precio total adjudicado	3.731.106,81 €

EGINDAKO ALDAKETAK MODIFICACIONES REALIZADAS UTE GOIERRI GARBIA	1. Aldaketa partziala: Modificación parcial nº1: Lazkao (16-09-2015)		2. Aldaketa partziala: Modificación parcial nº2: Legazpi (15-10-2015)		3. Aldaketa partziala: Modificación parcial nº3: Gabiria (28-12-2015)	
	Aldaketa Modificación	€/urteko €/año	Aldaketa Modificación	€/urteko €/año	Aldaketa Modificación	€/urteko €/año
Pertsonal kostuak - Costes de personal						
Erregai kostuak - Costes de combustible						
Beste zenbait kostu material - Otros costes materiales						
Inbertsioen amortizazioa - Amortización de las inversiones						
Exekuzio materialeko kostua - Coste de Ejecución Material	-41.217,56 €	3.005.564,99 €	2.250,03 €	3.049.032,58 €	8.114,00 €	3.054.896,55 €
Gastu Orokorrak eta Mozkin industrialia (%9) - GG y BI (9%)		270.500,85 €		274.412,93 €		274.940,69 €
Finantza gastuak - Gastos Financieros		70.922,30 €		70.922,30 €		70.922,30 €
PINARRI ZERGAGARRIA - BASE IMPONIBLE		3.346.988,14 €		3.394.367,81 €		3.400.759,54 €
BEZ (%10) - IVA (10%)		334.698,81 €		339.436,78 €		340.075,95 €
PREZIOA GUZTIRA / Precio total		3.681.686,95 €		3.733.804,59 €		3.740.835,49 €
		-1,32%		0,07%		0,26%

METATUTAKO ALDAKETAK - MODIFICACIONES ACUMULADAS UTE GOIERRI GARBIA	ALDAKETA Modificación	€/URTEKO €/año
Pertsonal kostuak - Costes de personal		
Erregai kostuak - Costes de combustible		
Beste zenbait kostu material - Otros costes materiales		
Inbertsioen amortizazioa - Amortización de las inversiones		
Exekuzio materialeko kostua - Coste de Ejecución Material	-30.853,53 €	3.015.929,02 €
Gastu Orokorrak eta Mozkin industrialia (%9) - GG y BI (9%)		271.433,61 €
Finantza gastuak - Gastos Financieros		70.922,30 €
PINARRI ZERGAGARRIA - BASE IMPONIBLE		3.358.284,93 €
BEZ (%10) - IVA (10%)		335.828,49 €
PREZIOA GUZTIRA / Precio total		3.694.113,42 €
Metatutako aldateta - Modificación acumulada (%)		-0,99%

Hirugarren. Erabaki honen berri Gabiriako Udalari eta kontratistari ematea, beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekursoen aipamena eginez.

Horrezaz gain, Gabiriako Udalak egindako eskaeraren lehenengo puntua ere aho batez onartu da.

4.- ORDAINSARIAK. Idazkaria eta Kontuhartzailea.

Lehendakari jaunak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

I.- Igaro den ekainean Korporazio berriak osatu ondoren, 2015-09-08an Sasieta Mankomunitateko organoak eratu ziren eta Lehendakaria izendatu izan zen, Aitor Aldasoro Iturbe, Beasaingo Alkatea jauna.

II.- Mankomunitateko estatutuak 1991koak dira eta 6. artikuluan adierazten dute, Idazkari eta kontuhartzaile funtzioak beteko dituztela Lehendakaria den herrikoak direnak. Horren arabera, Beasaingo Udalaren Idazkaria eta Kontuhartzaileak automatikoki betebeharrak horiei ekin die, lanpostu horiekiko erantzukizunak beraiei ardurapean geratuz eta 2015-09-16an eta 2015-10-15eko Batzorde Errektoreak egindako bileretan parte hartuz.

III.- Hala ere, eta estatutuek arautzen dutenaren kalterik gabe, hori ez da legeak ezarritako prozedura Toki Entitatea den Mankomunitateak, bi lanpostu horiei edo, kasua bada, Idazkari-Kontuhartzaile lanpostua izateko.

IV.- Mankomunitateak 2015. ekitaldi ekonomikorako duen aurrekontua 11.490.960 €koa da eta Mankomunitatea osatzen duen udalerriek ordezkaturako eskumenak, hiri hondakinen kudeaketa eta zaborteia ustiatzea, dira.

V.- Egun, Beasaingo Udalaren plaza horiek okupatzen dituenengatik Mankomunitateko Idazkari eta Kontuhartzaile funtzioak betetzea:

- Estatutuetan xedatutakoan bakarrik oinarritzen da, eraginpeko diren funtzionarioekin adostu gabe, 1732/1994 Errege Dekretuaren 31 artikuluan xedatutakoaren aurka.

- Foru Aldundiaren aldetik inolako baimenik ez dago.

VI.- Hori kontutan izanik, 2015-10-7ko idatziaren bidez, Idazkariak eta Kontuhartzaileak Mankomunitateko Lehendakariari eskatu diote **Batzorde Errektoreak erabaki dezala Idazkari/Kontuhartzaile plaza sortzeko eskaria egitea Eusko Jaurlaritzari**, ondoren, lege ezarritako prozeduraren bidez hornitu dezan. Hau guztia, Toki-Erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiak bere 37,3 artikuluan

xedatzen duenaren arabera, hau da, lanpostu horiek gaikuntza nazionaleko funtzionarioek bete behar dituztela.

VII.- 2015-11-23ko Batzar Errektoreak erabaki zuen **Eusko Jaurlaritzako Administrazio Publiko eta Justizia departamenduari ESKAERA egitea, Sasieta Mankomunitatearentzat Idazkari/Kontuhartzaile plaza sortzeko**, ondoren legeak ezartzen duen prozedura jarraituz hornitu ahal izateko.

VIII.- Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzak Ebazpena eman eta erreserbatutako funtzioak betetzeko modua zehaztu zain, lanpostu horiei dagozkien funtzioak burutzen ari dira eta horren ondorioz ordainsari osagarria ezartzea dagokio. Ordainsari hau Udalak ordainduko die funtzionarioei nominaren bitartez eta ondoren Mankomunitateak Udalari itzuliko dio ordaindutako kopurua.

OINARRI JURIDIKOAK

- Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen Legearen 22,2i) artikulua, ordainsari osagarriak ezartzeko eskumena duen organoari buruz.

- 1732/1994 Erret Dekretua, ordainsari horiei dagokien kopuruarekiko (gehienez, oinarrizko lanpostuari dagozkion ordainsarien %30a arte).

Horren ondorioz, Batzorde Errektoreak erabakitzen du:

Lehenik. Beasaingo Udalari Idazkariak eta Kontuhartzaileak Sasieta Mankomunitatean egindako lanengatik, urtean 11.150,73 €ko kopurua ordaintzea, hurrenez hurren.

Bigarren. Ordainsaria 2015eko irailaren 9ko atzera eraginarekin izango da eta hileror ordainduko da. Ordainketak 2016ko aurrekontuaren arabera izango dira, baina Beasaingo Udalak bere funtzionarioei ordaintzeko erabakia hartzen duenetik kontatzen hasita, 2015eko ekitaldi ekonomikoan sortutako hilerokoak barne.

Hirugarren. Plaza hornitzen denean, aipatutako ordainsari osagarria automatikoki ordaintzeari utziko zaio.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

5.- 2014. EKITALDIKO KONTU OROKORRA. 2014ko ekitaldiko Kontu Orokorra onestea, hala badagokio.

Lurdes Alegria Lasa, Kontuhartzaileak 2014. ekitaldiko Kontu Orokorra ezagutzera eman du eta ondorengo azaldu du:

2014. behin betiko aurrekontua, 10.282.542,45 €koa izan zela.

Gastuen exekuzioa ondorengo izan da:

KAPITULUA	2014 EKITALDIA			2013 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%	BEHIN-BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%
1.- Langileria gastuak	603.930,00	566.431,78	93,79	631.100,00	627.276,88	99,39
2.- Ond. arrunten eta zerb.en gastuak	7.328.350,00	6.881.199,91	93,90	7.013.641,57	6.342.616,36	90,43
3.- Gastu finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
4.- Transferentzia arruntak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6.- Inbertsio errealak	230.102,45	140.402,97	61,02	1.166.870,00	898.373,44	76,99
7.- Kapital transferentziak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
8.- Aktibo finantzarioak	2.120.160,00	1.347.243,06	63,54	19.822.650,17	19.578.867,94	98,77
9.- Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	10.282.542,45	8.935.277,72	86,90	28.634.261,74	27.447.134,62	95,85

Sarrerren exekuzioa ondorengo izan da:

KAPITULUA	2014 EKITALDIA			2013 EKITALDIA		
	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%
1.- Langileria gastuak	566.431,78	566.370,72	99,99	627.276,88	627.090,35	99,97
2.- Ond. arrunten eta zerb.en gastuak	6.881.199,91	6.148.756,91	89,36	6.342.616,36	5.101.260,87	80,43
3.- Gastu finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
4.- Transferentzia arruntak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6.- Inbertsio errealak	140.402,97	139.148,09	99,11	898.373,44	653.059,04	72,69
7.- Kapital transferentziak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
8.- Aktibo finantzarioak	1.347.243,06	1.347.243,06	100,00	19.578.867,94	19.162.459,56	97,87
9.- Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	8.935.277,72	8.201.518,78	91,79	27.447.134,62	25.543.869,82	93,07

AURREKONTU EMAITZA	
Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	12.142,50
• (+) Eskubide onartuak:	8.947.420,22
• (-) Obligazio onartuak:	8.935.277,72
Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitzak:	748,42
• (+) Itxitako ekitaldietan ordaindu gabeko obligazioen bajak:	2.579,02
• (-) Itxitako ekitaldietan kobratu gabeko eskubideen bajak:	1.830,60
AURREKONTU EMAITZA (doitu aurretik):	12.890,92
Doiketak, aurrekontu-emaitzan:	70.325,43
• (+) Diruzaintzako gerakinaren bitartez finantzatutako obligazioak:	62.717,25
• (-) Ekitaldiari egotzitako desbiderapen finantzarioak:	-7.608,18
AURREKONTU EMAITZA DOITUA	83.216,35

DIRUZAINZAKO GERAKINA		
DIRUZAINZAKO IZAKIN LIKIDOAK:		358.365,60
KOBRATU GABEKO SALDOAK:		1.472.514,95
· Sarrereren aurrekontuko zordunak: urteko ekitaldia:	782.935,19	
· Sarrereren aurrekontuko zordunak: itxitako ekitaldiak:	7.737,05	
· Aurrekontuz kanpoko zordunak:	681.841,87	
· - Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,84	
ORDAINDU GABEKO SALDOAK:		831.638,24
· Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: urteko ekitaldia:	733.758,94	
· Gastuen aurrekontuko hartzekodunak: itxitako ekitaldiak:	0,00	
· Sarrereren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
· Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	97.897,55	
· - Aplikatu gabeko ordainketak:	-18,25	
DIRUZAINZAKO GERAKIN GORDINA		999.242,31
SALDO KOBRAGAITZAK		33,58
DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDOA		999.208,73
FINANTZAKETA LOTUA DUTEN GASTUETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA		0,00
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA		999.208,73

Irabazi eta galeren emaitza: -212.846,55 €.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da 2014. ekitaldiko Kontu Orokorra.

6.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Eskaria eta galderen atalean komentatu da, 2016. ekitaldiko aurrekontua onartzeko Batzar Errektorea, 2016ko urtarrilaren 18an, 17,30etan egingo dela.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera, arratsaldeko zazpiak eta hamarretan amaitu da eta nik, idazkaria naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.